

Iñaki Lizaso Mendizabal

*Azpeitia,
Gipuzkoa
(1935)*

Aurkibidea

Biografia



Azpeitiko Alde zaharrear, Enparan kalean jaio zen. Ama zuen azpeitiarra; aita, berriz, zestoarra. Bost anai-arreba zituen, tartean Joxe Lizaso bertsolaria. 14 urtera arte eskolan ibili ondoren, harategi batean hasi zen laguntzaile gisa, eta, aurrerago, anaia Joxerekin argiketari ("electricista") lanetan ibili zen. Mila Odriarekin ezkondu eta lau seme-alaba izan zituzten.

Zintak

AZP-033

- **Proiektua:** Azpeitiko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Odria, Haizea
- **Data:** 2009-11-26
- **Iraupena:** 101 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Transkribatzailea(k):** Oruesagasti, Ainitze

Pasarteak

1. 'Pirenaica' irratsaioa ezkutuan entzuten

- **Erref:** AZP-033/006
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:10:54. **Bukatu:** 00:11:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia

Laburpena:

<p>Andorratik Pirenaica irratsaioa ematen zuten, eta Euskadiko albisteei buruzkoa izaten zen. Guardia zibilen batek hura entzuten harrapatuz gero, kuartelera eramaten zuten jendea, eta han egurra eman. Iñakiren anaia eraman zuten batean.</p>

Transkripzioa

- "Andorra la Vieja"... Hayek ematen zituen, ba, Euskadiko gorabeherak eta... Baiño guardia zibillen batek eo aitzen bazun ordun kontuk.
- Ze iten zebeu ba?
- Zea!?
- Fuera?
- Fuera! Zu kuartelea. Ni ez niñuen behin'e eman, baiño hori bai!
- Anaye?
- Geo, egurre.
- Ta harrapatzen bazizuen aitzen hori?
- Zein?
- Hori aitzen harrapatzen bazizuen...
- Etxien radiyue obserbatzen bazuen, zu "Pirenaica" o holaku aitzen ai ziñela... Jolin!
- Ordun ixkutuen aitu ber hori're?
- Bai...
- (Hiztuna 1) Politikuk, partik ematen zituen ta.
- Harek ematen zitun hemengo politikunak. Garai hartan igesi junda zaurenak. Monzon ta hoyek Frantziyen bizi zien ta.

2. Azpeitiko kaleetako giroa lehen

- **Erref:** AZP-033/008
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:15:07. **Bukatu:** 00:16:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Lehen Azpeitiko kaleetan zer-nolako giroa zegoen azaltzen du: baserritarrek janaria dendetan uzten zuten saltzeko, denak ezagunak ziren, kale bat astoz beteta egoten zen...

Transkripzioa

- E... hamen kalie nola akordatzeko zera zela leno? Hemen ze denda zeuden eo?
- Dendak?
- Dendak... o nolakue zan kalie?
- Ba, oker haundi be... oain etxiek eta berritute daure, baiño bestela... oso kale earrak zin hauek. Atin-atin dendie, dana ezauna zan ba. Ta basarrikuk etortzen bazan dendan iuel lagatzen zitun porruk saltzeko. Arrautzek eta ze esanik ez. Hemen zan pentsu almazena, Irintzailleko hortan. Hor pasaizue badao, ba, Enpan kale... hemen Erdi kaletik hementxe... pixket aurreo... hori astoz beteta eoten zan.
- A, bai? Horreatik al da astotaye?
- (Hiztuna 1) Ez.
- Ez, astotaye plaza atzie.
- Bai.
- Baiño hauetan... hor... hauen etxe aldetik etortzen zienak hayek hemen zaukeben. Hor lotzen zituen astuek. Azoka jun, beren pasaizu in, astu kargau ta etxea.

3. Azpeitiko tabernak eta kasinoa lehen

- **Erref:** AZP-033/009
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:16:15. **Bukatu:** 00:18:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Aisia » Taberna giroa » Hotelak eta pentsioak

Laburpena:

Lehen Azpeitian zer taberna zeuden aipatzen du. Kasino bat ere bazegoen hotela zuena. Bittorren tabernari buruz hitz egiten du, eta Bittorren ateraldi batzuk aipatzen ditu.

Transkripzioa

- Eta... ordun ba al zauen hemen taberna... hola ezaunik?
- Tabernak? Aurreko hau beti ezautu det. Euzkitza ez zan. Baiño... hor zien, oaintxe bezelaxe; Takolo Txikiyenekue, Pedronekue, Ustarriñeku ta Olkiñeku. Lau erreskan. Gero hor behera Galtxanekua... Erdi kalin taberna gutxi zan.
- A, bai?
- Ta geo...

- (Hiztuna 1) Barberiye hamen aurrien.
 - E?
 - (Hiztuna 1) Hamen aurrin estankuko... barberiye.
 - Beti, hor bai.
 - (Hiztuna 1) Olkiñekue ta Aureliñeko dendie...
 - Gero, hure gero.
 - (Hiztuna 1) Gero?
 - Bai. Ta goyen zien beste... bi-hiru taberna. Antonenekua... oain "Fideo de mileto" o dao... Geo, oin banku ta dauren plaza txiki hartan, han kasinua.
 - Kasinu al zaon Azpeitin?
 - Hor?
 - Bai, e?
 - Haundiye, hotel da guzti.
 - Ez nekin nik hori.
 - Bai... Hori dana zan... Hasi hortiken ta Bitorreneño bitarteko hori... tartien beste etxe bat, eta hotela. Ta beheyen tabernie ta komedorie ta... goyen'e bai. Bodak eta danak iten zien hor.
 - A, bai e?
 - Eta goyen zeuzkeben... jardiñe oso earra! Ta frontoie, oin daon hori? Kasinoko frontoie zan. Oso kuriosu zan hori! Geo, Azilonenekue ta hurrena Bitorrena. Mundun tabernaik famosuna!
 - Ze ba zan famosue ba?
 - Famosu, bea zalako halakue.
 - Bea...
 - Horko nausiye nik ez nun ezautu, errena emen zan. Ta horreatiken omen zuen Tojuneku izena. Ta geo, Bidaniko bat etorri zen horrea, Bittor. Ta... hark dana haundiye zun ba... hola hizketan hasten zanien ta erokiye zan... Ta kemiona ekarri zun semintzako... ta garai hartan oin bezelako erreztasunik'e ez... Kamion haundi zamarra zan, bai, garai hartako ta galde diyo: "Jo, Bittor, hori dek kamiona ekarri dekena..." "Kamiona ez dek hau!" "Zer dek ba?" "Hau trena dek!". Holako ateraldi asko zittun. Ta beak esaten zun bi gizonen erten zebela Bidaniyen. Obispu zan bat, Bereziartua o, hamen Donostin eon zan. Hure ta bea.
 - Bi gizon bakarrik?
 - Bi gizon bakarrik.

4. Azpeitiko taberna giroa eta "tanke erdia"

- **Erref:** AZP-033/010
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:18:57. **Bukatu:** 00:20:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

Lehen txikiteoan ibiltzea oso ohikoa zen. Azpeitian "tanke erdia" asmatu zuten, hau da, edateko neurri berri bat, baso erdia baino gehixeago betetzen zena. Horixe eskatzen zuten diruz juxtu zebiltzanek. Azpeitian taberna asko zeuden, eta batzuk aipatzen ditu.

Transkripzioa

- Ta ordun... txikiteue ta hori ohitturie izengo zan, ez? Txikiteoa ertetzie

ta... Oin baiño geyo, ez?

- Txikiteue... besteik ez. Ta ardu eateko moru zaukena, ondo! Horreatik atea zebeñ hemen, beste iñun ez, tanke erdiye.

- A, neurriye?

- Baso espezialak zien, hola takie esaten zitzatenak. Eta diruz juxtu zabillenak, ba, tanke erdiye... Ta tanke erdiye, nunbait, iten zuen erdiye baiño pixkat geyo ematen zuen ardue. Eta orduen, tankie eskau berrien, bi tanke erdi. Geyo eateatik. Diru falta. Baiña taberna asko zan artien e!

- (Hiztuna 1) Tomasenekue.

- Hor plaza atzien Tomasenekue zan, Hartzubiyen Munateñekue, Errebalien Zabalana...

5. Apustuak egiteko zaletasuna Azpeitian

- **Erref:** AZP-033/012
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:23:51. **Bukatu:** 00:24:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:

<p>Apusturako ohitura zegoen lehen Azpeitian. Zer-nolako apustuak egiten ziren azaltzen du.</p>

Transkripzioa

- Hamen geo zan ohiturie apuxtua.

- Bai, apustuzaliek.

- Laixtekan.

- A, laixterkan?

- Bai, pixkat parrandan zabilzenien ta muturre berotutekun... hemen goitik behera turbina bat zan, oin botata dao baiño eta... handiken bueltie o bestela galtzadatik galtzada esaten ziyoen. Axkoitire jun ta sarreran galtzadie hasten zan tokiyen han buelta hartu ta honea... Baiño asko apustuk e... gabin e! Bua! Earra zan hau garai hartan bizitzeko.

- Ta zeu... in al zenun apustun bat o? Akordatzen al zea?

- Ez. Laixtekako auki gendun guk bat preparauta, baiño...

- Bai?

- Bai...

- Entrenauta?

- Entrenatzen... gabaz hor ibiltzen giñen, "jendeik gutxina nun ibiltzea? Han" ta "hara jungo gaittuk" eta. Ba, ordun eske... beste eze ez zan da!

6. Aisiladia lehen Azpeitian: erreka eta zezen-plaza

- **Erref:** AZP-033/013
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:24:55. **Bukatu:** 00:25:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekek eta uretako jolasak

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Azpeitian hondartzarik egon ez arren, erre kara joaten ziren bainatzera. Pausoz pauso igerian ikasten nola joaten ziren azaltzen du. Zezen-plazan ere apustu ugari egiten ziren.

7. Eskolako liburua, zigorrak eta ohiturak

- **Erref:** AZP-033/014
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 00:25:57. **Bukatu:** 00:28:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak

Laburpena:

Umetan zer eskolatan ibili zen aipatzen du. 5-6 urte zituela hasi, eta 14 urtera arte ikasi zuen han. Eskolan liburu bakarra erabiltzen zuten gai guztietarako, eta zer ikasten zuten azaltzen du. Erdaraz ikasten zuten eskolan, baina ez zuten zigorrik izaten euskaraz egiteagatik; mojatzen ibili ziren neskek, ordea, frantsesez ikasten zuten. Iñakiren eskolan ez zuten uniformerik erabiltzen.

8. Eskolako maisuaren nortasuna eta zigorrak

- **Erref:** AZP-033/015
- **Iraupena:** 0:03:45. **Hasi:** 00:28:45. **Bukatu:** 00:32:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

Eskolan, astean behin irteten ziren jolastokira. Garai hartan, gosea zegoen, eta jolastokira irtetean, fruta lapurtzen zuten batzuek. Maisua begira egoten zen; eta gero, klasera sartzean, lapurretan ibili zena harrapatuz gero, jo egiten zuen. Maisu hark ondo irakasten zuen, baina gogorra zen, eta okerreko erantzuna emanez gero, muturrekoa ematen zuen. Maisua langile handia zen: maila ezberdinetako 100 ikasle zituen, eta denei ematen zien klase; baina haserretzen zenean, ahulenak ordaintzen zuen. Eskolan zer ordutegi zuten azaltzen du.

9. Eskolarekin irteerak egiteko trabak

- **Erref:** AZP-033/017
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:33:47. **Bukatu:** 00:34:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Eskolan ez zuten txangorik egiten: 100 ikasle izanda, sakabanatu eta galdu egingo lirateke. Lehen jendea basatiagoa zela dio. Udan izaten zituzten oporrak, baina baserrira joan behar izaten zuten orduan lanera.

10. Udako oporretan itulan

- **Erref:** AZP-033/018
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:34:43. **Bukatu:** 00:36:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrira » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Aisia » Oporrak

Laburpena:

Udako oporretan itulan egin behar izaten zuten. Itula zer zen eta zertarako egiten zen azaltzen du. Kaleko umeek ere baserriko lanetan aritu behar izaten zuten beren gurasoak baserritarrak baziren.

11. Gaztetako lanak eta lan-baldintzak

- **Erref:** AZP-033/020
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:36:34. **Bukatu:** 00:38:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Baserrira » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

<p>Eskola bukatutakoan, harategi batean hasi zen lanean. Han zer eginkizun zituen azaltzen du, eta oso diru gutxi irabazten zuela dio, 14 urtekoei oso gutxi ordaintzen baitzitzaien helduen aldean. Hain gutxi irabazita, eta Eibar aldean langileak behar zirenez, jende asko hara joan zen diru gehiago irabazteko asmoz.</p>

12. Azpeitiko organo-fabrikaren inportantzia

- **Erref:** AZP-033/021
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:38:35. **Bukatu:** 00:39:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ekonomia eta industria » Industria motak

Laburpena:

Iñakiren gurasoek organoen fabrika egiten zuten lan. Fabrika inportantea zen hura, eta non zegoen azaltzen du. Han egindako organo batzuk aipatzen ditu.

13. Azpeitiko lantegiak eta lan-prozesuak

- **Erref:** AZP-033/022
- **Iraupena:** 0:03:36. **Hasi:** 00:39:20. **Bukatu:** 00:42:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Burdingintza
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Erreminta-makinak
- Ekonomia eta industria » Lantegiak

Laburpena:

Harategian nola hasi zen kontatzen du. Azpeitian otarrak eta aulkiak egiteko lantegiak zeuden. Lehen, ordea, ez zegoen mekanikarekin lotutako lanik Azpeitian; hori gerora hasi zen. Burdinarekin egiten zen lanaz hitz egiten du: txatarra trenean iristen zen, eta hainbat tresnarekin eskuz lantzen zuten; orain, ordea, askoz arinagoa eta automatikoagoa da prozesua. Burdinarekin lan egitean egondako istripu batzuk aipatzen ditu. Egurrekin nola egiten zen lan azaltzen du.

14. Umetako koadrilen ohiturak eta haien arteko hierarkia

- **Erref:** AZP-033/023
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:42:56. **Bukatu:** 00:43:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Aisia » Kirola » Pilota
- Aisia » Kirola » Futbola

Laburpena:

Gaztetako koadriletan kaleko lagunak elkartzen ziren. Futbolean eta pilotan non jolasten zuten azaltzen du. Adinez nagusiagoak zirenek lehentasuna izaten zuten frontoiak edo futbol-zelaiak erabiltzeko garaian.

15. Etxean egindako pilotak eta baloiak

- **Erref:** AZP-033/024
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:43:59. **Bukatu:** 00:45:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota
- Aisia » Kirola » Futbola

Laburpena:

Pilotak salgai egoten ziren, baina garestiak izaten zirenez, amak jositako pilotekin jolasten zuten beraiek. Baloiak ez ziren gaur egungoak bezalakoak, baizik eta paperez eta lokarritz egindakoak. Azpeitian izan zen lehenengo gomazko pilota karratua izan zen.

16. Kotxerik ez, eta kamioiaren atzean kateatzen

- **Erref:** AZP-033/026
- **Iraupena:** 0:00:41. **Hasi:** 00:47:18. **Bukatu:** 00:47:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk

Laburpena:

<p>Azpeitian kotxeak arruntak ez ziren garaian, Donostiatik kamioi bat etortzen zen noizean behin, eta umeak haren atzean kateatzen ziren.</p>

17. Eskopetekiko zaletasunik ez, eta soldadutzara joatera behartu zutenekoa

- **Erref:** AZP-033/028
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:48:45. **Bukatu:** 00:49:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

<p>Ehizara joateko zaletasunik ez du izan inoiz. Soldadutza bota izan ditu bota dituen tiro bakarrak. 21 urte zituela joan zen soldadutzara, eta urte eta erdi eman zuen han.</p>

18. Soldadutza lagunak uretara bota zituenekoa

- **Erref:** AZP-033/030
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:50:13. **Bukatu:** 00:51:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

Soldadutza bi lagun uretara bultza zituzten; aldatzeko arroparik ez zuten, egun libre eman zieten. Garai hartan, dirurik ez zuten, beren ilusio handiena jatekoa lortzea zen. Bergarako lagun bat aipatzen du.

19. Orduko arropak, ondo aprobetxatutakoak

- **Erref:** AZP-033/032
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:52:37. **Bukatu:** 00:54:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Orduan etxean josten zen arropa janzten zuten. Arreba jostun ona zen, eta hark egiten zizkieten jantziak. Iñakik ezin zuen jaso anaiaren arropa, haren arropa handiegia baitzen beretzat. Arropa puskatu arte erabiltzen zuten; eta aste osoan arropa bera.

20. Umetan garbitzeko errekan bainatzen

- **Erref:** AZP-033/034
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:54:38. **Bukatu:** 00:55:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:

Umetan errekan non eta nola bainatzen ziren kontatzen du.

21. Gurpilak birziklatuta lortutako abarkak

- **Erref:** AZP-033/035
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:55:36. **Bukatu:** 00:56:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Abarkak egiteko, autoen gurpil zaharrak erabiltzen zituzten. Gomazko abarkak gerora hasi ziren egiten.

22. Denbora aurrera, eta janaria hobe

- **Erref:** AZP-033/038
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:59:54. **Bukatu:** 01:01:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Lehen sardina zaharrak jaten zituzten. Pixkanaka-pixkanaka hobetzen joan zen jaten zuten janariaren kalitatea.

23. Herriko festetako "baimen" bereziak

- **Erref:** AZP-033/040
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 01:02:25. **Bukatu:** 01:04:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

San Inaziotan bakarrik izaten zen libre dantza lotuan egitea. Herriko festen bilakaerari buruz hitz egiten du.

24. Danborradaren sorrera eta bilakaera Azpeitian

- **Erref:** AZP-033/041
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 01:04:00. **Bukatu:** 01:05:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

<p>Danborradak nola hasi eta bilakatu ziren kontatzen du. Hasiera batean, lñakiren garaian, norberak josten zituen bere jantziak danborradarako.</p>

Transkripzioa

- Leno tanborradi nola izeten zan?
- (Hiztuna 1) Hauek zien "los fundadores".
- A, bai?
- Ba, izen zan donostiar bi apaiz tokau zien Azpeitiyen. Ta ordun, "accion catolica" ta bezela Oargi zan. Ta nunbait hango gaztiekin te hasi te... Handik hara hasitekue zan tanborradie, baiño geo sozidadiei eska ziyoen, sozidadiek danak itsuli zin. Hamen urte pare bat hiru bat kenduz geo beti in da tanborrada ona. Ta oin, berriz, ze esanik ez daukezu. Baiño garai hartan, guk danborrak eta danak geuk in giñuzen e!
- Bai, e? Trajiek eta're bai?
- Trajeik ez gendun. Merkena, alkonda zuriye gutxi o geyo... geyenak zaukeben, ba, etxin. Ta aurreko mantala in ber zan. Aurreko mantala iteko jostunde batea jun. Ta han neskak ibiltzen zien josten ikixten ta: "Faore bat eskauko giñuzeko, ba, ta...". "ze?" ta "Tanborradako..." "Geuk ingo dizugu!". Neurriye gutxi gorabehera hartu, ta danantzako iuala. Aurreko mantala hayek in zizkuen.
- Kozinero jantzita?
- Bai.
- (Hiztuna 1) Kantinerak, perriz, Irunetik ekartzen zituen.
- Lelengo, bai... zea neskantzako!
- (Hiztuna 1) Neskantzako, bai.
- Bajiña bat aldiz jun giñen Irunea.
- (Hiztuna 1) Urtiitan.
- Hango konserjiei eman propiñie ta harek ematen zizkun erropak eta... Atzea tanborradie pasatzen zanién, handiken bi-hiru eunea o astebukaeran hayek jun ta entregau ta...
- Ta zenbat talde izeten zien hasieran?
- Haseran bi-hiru... ta geo pixkena ugeltzen jun zien.

25. Azpeitiko Santo Tomasetako giroa lehen eta orain

- **Erref:** AZP-033/045
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 01:09:19. **Bukatu:** 01:10:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Aisia » Taberna giroa
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Santo Tomasetan lehen giro hobearen egoten zen Iñakiren ustez. Lehen baserriaren eguna zen; orain, ordea, kaletarrena. Lehengo eta gaurko Santo Tomasen arteko aldeak aipatzen ditu.

26. Aisialdian paseatzen zinea Azpeitira iritsi zen arte

- **Erref:** AZP-033/047
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 01:12:13. **Bukatu:** 01:14:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Lehen paseatzen ibiltzen zen jendea aisialdian, ez baitzegoen zinerik garai hartan. Lehenengo zineak noiz eta non ireki ziren azaltzen du.

27. Eztei-bidaian Valle de los Caídos bisitatzera joandako eguna

- **Erref:** AZP-033/050
- **Iraupena:** 0:03:44. **Hasi:** 01:18:40. **Bukatu:** 01:22:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Eztei-bidaian Madrilen zeudela, Valle de los Caídos ikustera joan ziren behin emaztea eta bera, bikote tolosarrekin batera. Txangoko anekdota batzuk kontatzen ditu. Bidaia hartan ezagututako bikote tolosarrekin bizi guztirako lagunak egin ziren.

28. Euskaraz bizitakoa, hika eta zuka nori egin izan dien

- **Erref:** AZP-033/054
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 01:25:03. **Bukatu:** 01:26:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Euskaraz hitz egitea debekatuta egon arren, beraiek ez zekiten erdaraz hitz egiten, eta ez zioten debekuari kasurik egiten. Lagun artean hika egin

izan dute beti. Emakumeei, anai-arrebei, eta seme-alabei, ordea, ez die hika egiten. Apaizari zuka egiten dio.</p>

29. Komunioa egin ahal izateko azterketa

- **Erref:** AZP-033/057
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 01:32:37. **Bukatu:** 01:33:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak

Laburpena:

<p>Lehen komunioa nola izaten zen azaltzen du. Azterketa moduko bat egiten zuten apaizek, eta hura gainditzeko ez bazen, bi aukera egoten ziren komunioa egin ahal izateko: batzuek oparia eman behar izaten zuten; eta besteek urtebete itxaron behar izaten zuten.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-03-10

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com